



07/2021 Ebazpena, otsailaren 18koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zerbitzuen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 35.3 artikulua birbarematzeko prozesua arautzen duena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak hautatzea arautzen duenak, Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan emandako zerbitzuak urtero birbarematzeko prozesu bat ezartzen du, bere aplikazio-eremuko langileak izendatuta dauden kidegoan, aukeran edo eskalan.

Era berean, agindu horren 35.3 artikulua xedatzen du, behin bakarrik eta indarrean sartu ondoren egiten den lehen birbarematzeko-prozesuan, kidegoan/aukeran izendapena duten eta birbarematu daitezkeen bi poltsatokoak diren langileek: kidego-/aukera-poltsa bat eta, aldi berean, lanpostu-poltsa bat edo kidego-/eskala-poltsa bat, emandako zerbitzuak zenbatzea nahi duten lan-poltsa aukeratu ahal izango dutela. Horretarako, jakinarazpen bat bidaliko zaie, poltsa hori zein den adierazteko eskatuz. Hala egin ezean, berriz barematuko da orain duen izendapena eragin zuen poltsan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zerbitzuen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren azken xedapenetatik bigarrenak emandako eskumenaren arabera.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa: 10 egun baliouduneko epea irekitzea, 2021eko martxoaren 3tik 16ra, biak barne, 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 35.3 artikuluan araututako kasuan daudenek aukera dezaten zerbitzuak barematzea nahi duten lan-poltsa. Eskabiderik egiten ez bada, izendapena eragin zuen poltsan barematuko dira zerbitzuak.

Bigarrena: ebazpen hau argitaratzea hautagaiaren Atarian eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren webgunean.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek hautagaiaren atarian eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 18a.

JOSE MARIA ARMENTIA MACAZAGA
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA

ERANSKINA

Izena:

Abizenak:

Eskatzen dut birbarematzeko lan-poltsa honetan:

2021eko martxoaren ___a

Sinadura:

Bidali sinatuta martxoaren 14a baino lehen helbide honetara:
Funtzio publikoko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza
Provision-seleccion@euskadi.eus